

SENCO

Guztiontzat eskuragarri dauden produktuak sortzeko helburua duen enpresa gara. Horretarako, pixkanaka etxetresna elektrikoen gama zabala garatuko dugu. Gure lehen produktua ile-lehorgailu bat izango da. Produktu honen bidez, lortu nahi duguna kontsumitzaileentzako ahalik eta erosotasun handiena eskaintzea da.

Ile-lehorgailu inklusibo bat sortu dugu, hau da, arazoren bat duen jendea sartu nahi dugu, baina gainerako jendeak ere erabil dezake. Honek forma luzanga du pisua behar bezala banatzeko, botoiek mekanismo errazagoa dute, eta brailea erabiltzeaz gain ikuspen gutxiko edo ikusmenik gabeko jendeak erabiltzeko, beroa edo hotza irudikatzeko marrazkiak ere ekartzen ditu koloreen ordeztu, daltonismoa duen jendearentzat. Lehorgailuak ez du zaratarik egingo edo ahalik eta gutxien, sentsibilitatea duen jendearentzat. Amaitzeko, oinarri bat dakar, eutsi ahal izateko eta bezeroei ilea lehortzerako orduan lan hori errazteko.